

ATE IREKIEN JARDUNALDIA ZUZENDARITZA 2020ko OTSAILAren 25a

2020ko OTSAILAren 25an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du zuzendaritza espezialitatean. Bertan parte hartuko dute Basilio Astúlez eta Arturo Tamayo irakasleek eta Musikeneko zuzendaritza ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten zuzendaritza ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Espezialitatearen irakaskuntzaren berezitasunak azaltzea.
- Espezialitateko irakasleekin lehen kontaktua izatea.
- Sarrera-proben edukia eta ikastegiaren aukerak zehaztea.
- Etortzen direnen eta etorkizuneko ikasleen beharrei eta zalantzei erantzutea.
- Musikenen ikasteak dituen abantailak, zehaztasunak eta kalitateak azaltzea.
- Ikastegia kanpoko begiradei zabaltzea.

Lan-egitasmoa

9.00-10.00: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Zuzendaritza espezialitateko ikasketa-planari buruzko informazioa, osatzen duten irakasgaiak eta irakasleak aurkeztea. Sarrera-probak, ikasketa amaierako azterketak, eskola eta eskola kanpoko jarduerak, Erasmus eta ikastegiaren ekipamenduaren inguruko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

10.00-12.00 Koru zuzendaritza eskola praktikoari bisita.

Entzule modura Basilio Astúlez irakaslearen zuzendaritza eskola bat ikustea, zuzendaritza ikasleen entsegu eta prestakuntza lana ikusi ahal izango dutelarik. Ikasleei aktiboek koru pilotua denbora labur batez zuzentzeko aukera emango zaie, irakasleak aholkuak eman edo iradokizun laburrak egin ahal izateko.

12.00-12.30: Koru zuzendaritza eskola praktikoari bisita.

Basilio Astúlez irakaslearen eskola teoriko bat ikustea, hain zuzen ere eskola praktikoaren ondorengo eskola teknikoa, bertan landuko direlarik koruarekin egindako gauza zuzen eta okerrak, eta irtenbideak.

12.30-13.30: Koru zuzendaritza espezialitate irakaslearekin banakako elkarrizketak

Basilio Astúlez irakasleak banaka arreta emango die hala nahi duten bisitari guztiei. Elkarrizketa hauen helburua da: aholku ematea (balizko hautagaiek lanen bat eraman dezakete irakasleak azaletik baloratu edo begiratzeko), galderak erantzutea eta kontaktu pertsonala ezartzea.

13.30-14.30: Orkestra zuzendaritza espezialitate irakaslearekin banakako elkarrizketak

Arturo Tamayo irakasleak banaka arreta emango die hala nahi duten bisitari guztiei. Elkarrizketa hauen helburua da: aholku ematea (balizko hautagaiek lanen bat eraman dezakete irakasleak azaletik baloratu edo begiratzeko), galderak erantzutea eta kontaktu pertsonala ezartzea.

14.30-15.30: Etenaldia

15.30-16.30: Orkestra zuzendaritza eskola teorikoari bisita

Bisitarien Arturo Tamayo irakaslearen eskola teorikoa entzule modura bisitatzeko aukera, hain zuzen ere orkestraren aurreko eskola praktikoaren aurrekoa.

16.30-18.30: Orkestra zuzendaritza eskola praktikoari bisita.

Entzule modura Arturo Tamayo irakaslearen zuzendaritza eskola bat ikustea, zuzendaritza ikasleen entsegu eta prestakuntza lana ikusi ahal izango dutelarik. Ikasleei aktiboei orkestra pilotua denbora labur batez zuzentzeko aukera emango zaie, irakasleak aholkuak eman edo iradokizun laburrak egin ahal izateko.

18.30: Agurra eta Ate Irekien jardunaldiaren amaiera.

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Konposizio, Analisi, Zuzendaritza eta Teknologien Departamentuko Buruarekin: M^a Eugenia Luc mluc@musikene.eus